

AITA JOSE DONEAREN

○ ○ BEDERATZIURENA ○ ○



IZEIN IKASBIDE ONA!

ATV
5.891

1928

AITA AZKUE



M- 8734
R- 36306

ATV
5.891

AITA JOSE DONEAREN
— BEDERATZIURENA —

AITA JOSE MARIA AZKUE
PRANTZISKOTARAK ERATUA



Dotxao Urigüen.—Bilbao

1928

FR. PETRUS ARANGUREN

Censor Ordinis

IMPRIMI POTEST

ZARAUZ, DIE 3 JULII 1928

FR. ANTONIUS RECONDO

Minister. Prov.

NIHIL OBSTAT

LIC. PETRUS DE ANASAGASTI

Censor

IMPRIMATUR

VICTORIÆ, DIE 18 JULII 1928

† MATTHÆUS EPISCOPUS

VICTORIENSIS

ITZ-AUREA

Jesus eta Mariaganako oneraspenakin batera, Jose done-zaleak ere izaten, erakutsi zigun gure Aita Prantzisko doatsuak. Au dala-ta ainbat goratu izan dute bere semeak. Berai zor zaie urtero bere eguna gordetzea; berak eliz-arendietan jañi zuten Maria ta Jose ezkondu ziran eguna; Prantziskoren semeak artu zuten Ordenako Zaindari; beretakoak ziran zazpi igandeak jañi zituztenak; berak San Jo-seren eskuplaioaren oneraspena zabaldu zutenak. Eta azkenik Prantziskoren irugañengo batek, IX-gañen Piok, agindu zuan Eliza guztian Zaindari artzeko. Prantziskoren semeak, irugañengoak batez ere, ondo izango da oneraspenik sutsuena Jose doneari izatea. Ontarako egoki dator bederatziurñen au, beste oneraspenen artean.

Zarautz, 1928-go Garagañilaren 13-an

Oaña. Bederatziurñen onetan datozen mirariak ez dute beste indañik VIII-gañen Urbano Aita Santuaren erabakiz ematen zaiena baizik.

GURUTZE SANTUAREN...

DAMU-OTOITZA

Jesukristo nere Jauna, Jaungoiko ta egiazko gizona, nere Egile ta Eroslea, Zu zerana zera-lako ontasun azkengabea ta erukitasun berbera, zure aurrean eta nere kaltez egin ditudan oker guztien damu naiz, eta pekaturik ez geiago egiteko asmoa badet. Indazu, Jauna, grazia zure Aita-ordekoak erakusten dizkidan onbi-deak jaraitzeko, bizitza au ondo igarota, zure izen donea, Jesus, Maria eta Joserena bate-ra, biotzean eta ezpañetan ditudala, eriotz orduan azken asnasa eman dezadan, eta il da gero, zuekin eta doatsu guztiakin, zeruko atse-giñetan arkitu nadin. Amen.

Jesus, Maria ta Jose, bizitzan eta il-larrietan lagundu, aŕen, guri. (100 eguneko barkapenak).

EGUNEROKO OTOITZA

(Prantziskotar Sena'ko Bernardino donearena).

Gutzaz oroitu zaite, aŕen, o Jose doatsua, eta iritxi zaiguzu zure bitartekotasunaren laguntza bere Aita deitu zizun Arengandik.

Orobat gure aldeko jañi ezazu zure ezkontide Birjiña txit donea, Aitarekin eta Espiritu Santuarekin betikotasun guztian bizi ta agintari dan-Aren Ama. Amen. (100 egun bark. XIII-gařen Leonek).

LENENGO EGUNA

Jose donearen aunditasuna

Jaungoikoak bere aintzarako ta guztien onerako egin zuan gauzarik aundiena ta maitagarriena, bere Seme bakara gizon egiñik ikustea zan. *In ipso condita sunt universa...* (Paulo doneak-Col. 1-16). Seme-Jaungoiko onek orde, beste semeak bezela jaio nai izan zuan; oregatik Ama baten bearean arkitu zan, Aurtxo egiñik, ama batek bere semetxoarekin egiten dituan zeregiñak egiteko. Autu zuan bada Ama au "Andre guztien artean onetsia" "Orban gabę sortua" ta "Ispilu garbia". Bañan istilu goñienak ikusi bear zituzten bai Aur-Jaungoikoak, bai Ama Mariak; lana, nekea, gose ta egaña, ta Herodesgandik iges egiñ beara, ta erbeste luzea... ¿Utziko ote ditu laguntza gabe Aita Jaungoikoak? Ez: zelaiak lore ederež jazten dituan Zeruko Aitak, ez ditu nolana utziko. Or dago Jose "Gizon zuzena" Josek lagunduko die; bera izango da Ama-Semeak zaituko dituana. Jaungoikoak Ama Mariaren ezkontide ta Jesus-Auraren Aita-or-

dekoa izateko autua dauka. Mariak itzalik aundienakin begiratuko dio Joseri. Aur-Jaungoikoak Joserren esana beti egingo du. Zer aunditasuna Joserena! Zeru ta luñen Éregiña Joserren mendean! Érege guztien Éregea ta Jaun guztien Jabea, Joserren aginduak egiten!

Begira bada zer eskubidekin egongo dan zeruan! Begira zenbat egin dezaken bere gogoken alde ¡Maite izan zazu bada zure Ongile ta Bitartekoa: estutasunetan beregana joan zaite, eta berak iritxiko dizu Jesus eta Mariagandik ongi dagokizuna, bizitza ona, ta eriotz obeagoa.

IKASBIDEA

Andizki batek oneraspen sutsua zion Jose doneari; bere eguna goratzeko batez ere, etzekian zer egin. Urte batzuen buruan, seme bat il zitzaion, oraindik gaztetxoa, epailaren 19-an Jose donearen egunean; bestea beriz, urango urtean, egun berean. Bere seme biak Jose donearen egunean il zitzaizkiolako, bere ongi-leaganako oneraspena zerbait epeltzen asi zitzaion, eta ezin zuan asmatu, zer dala-ta Jose doneak mundu onetatik eraman zizkan bi semeak.

Bein baso batetik zijoala bi gorputz erailberriak ikusi zituan zuaitz batetik zintzilik. Oiei begira zegoala aingeruak esan zion: "Oñela erailak izango ziran zure bi semeak

ere, Jose doneak zeruratu ez balitu. Ezazu bada Joseganako oneraspenik utzi. Etzaizu beste semea oraingoan ilko. Oraindik gazte-txoa bada ere, apaiz egiñik ikusiko dezu". Añezkero geitzen joan zan aundizkiaren oneraspena, eta bere semea apaiz arduratsu bat izan zan. Ofela ibiltzen da Jose donea bere gogokoakin.

(Gogartu beza bakoitzak irakuñi dana, ta eskatu beio Jose doneari opa duan grazia).

Iru Aitagure, Agur Maria eta Gloria.

AZKEN-OTOITZA

(Memorare)

Oroitu zaite, o Birgiña Mariaren ezkontide garbia, nere laguntzale gozoa, Jose donea, ez dala iñoiz entzun izan zure bitartekotasunaren bila, ta zure laguntzaren eske joanda, utsik geratu danik. Uste onekin indartua, zure aurre-ra natorkizu, eta biotzeko berotasunik aundienakin zure eskuetan jartzen naiz. A! ez utzi nere eskariak entzun gabe, o Eroslearen Aita-ordekoa, bestela artu itzazu nere alde, eta erukiz lagun zakizkit, añen. Amen.

(300 eguneko barkapena IX-gařen Piok)

Egizu, Jose doatsua, zure bitartekotasunez indarturik bizitza garbi bat igaro dezagula. (300 eguneko barkapena XIII-gařen Leonek).

BIGAREN EGUNA

Jose donearen eskumendea (Obedientzia).

Erege aro baten aginduz, Jose doneak, bere ezkontide Mariarekin Belen urira joan beara izan zuan. Zenbat gazi-geza eramán bear izango zituzten bidean! Zenbat ezezpen artu bear-ko zituzten uri artan, inon ostaturik bilatu ezin zutelako!

Baña gora-bera guztiak laixter aztu zitzaizkaten, Jesus, "Gizaldiak ikusi nai izan zuten" Jesus, Aurtxo egiñik ikusi zutenean! Belengo inguru guztia zeru bat egiñik zeukaten aingeruak. Artzaiak pozez zoraturik zebiltzan Aur jaio beñaren aunditasuna zabaltzen. Urutiko eregeak "Judañen Eregea non jaio zan galdezka" Jerusalem uritik igaro ziran...

Luzarokoak etziran ordea izan egun aiek. Erazorik gogorenak etofñ bear zuten Jesus-gana. Erege gaizto batek, bere agintzaldia kenduko diolakoan, Aur jaio beña non dagon jakin nai du, berealaxe erailtzeko asmoz. Ume gaixoa! Ama erukañal! ¿Ez ote da nor edo nor izango berai esango dionik? Bai: begira Jose, diotsa aingeruak gau baten, artzazu Semea ta bere Ama, eta zoaz Ejiptora, eta an egon zaite nik esan arte. "Agur Judeako luñaldi edeñal! Agur Belengo estalpeal! Agur Nazaret! Agur adiskideak!..

Berealaxe Josek artzen ditu Ama-Semeak eta ekiten dio bideari. Eta bidez bide, mendiz mendi, oñela joan ziran goserik eta egañiz Ejiptora.

O zer ikasbide edera guretzat! ¿Ez al dizkagu gure biotzeko ateak itxitzen goiargiari? Askotan ez al diegu entzungor egiten Jaunaren agindu berai? ¿Ez al degu gure burua jasotzen gure nagusi diranen kontra? ¿Nola gera gurasoekin?.....

Ikasi dezagun bada esagiñak izaten Jose bezela.

IKASBIDEA

Prantzisko donearen seme bi itxasoz zijoa-zela, zeramaten ontzia galdu ta puskatuta, ol bati eutsirik iru egun igaro bear izan zituzten itxaso afoaren erdian.

Estutasun artan Jose doneaganako zituzten bere gogoa eta biotza. Iru egunen buruan Jaun bat agertu zitzaien itxasoan, eta au bare-bare egiñik legoñera atera zituan. Auek auspesturik beren esker ona agertu naian galdetu zioten: ¿Nor zera zu? "Ni Jose naiz, erantzun zien, nere gogokoa danik egin nai badezute, egunero zazpi Aitagure zazpi Ave María eta Gloria esaizkidazute, nere zazpi atsekabe ta atsegiñen oroipenean "Au esan da berealaxe ezkutu zitzaien. Emendik dator zazpi igandetako oneraspena. Artu zazute bada egunero zazpi

Aitagure Santuari esateko asmoa eta berak onez aterako zaituzte gorputzeko ta animako arisku guztietatik.

IRUGAREN EGUNA

Jose donearen garbitasuna

Ezkondiak beren etsaiak baldin badituzte, ezkondiak ez diranak ez dituzte gutxiago. Munduak, diabruak eta griña txarrek sare asko zabaltzen dituzte, oen artean nastuta infernura eramateko. Zintzoenak ere naiko lana badu. Paulo donea bera, Apostolua izanda guztiz ere, istilu goñenean ibiltzen zan, eta etzan onez aterako Jaungoikoaren grazia izan ez balu.

Elizako gurasoak esaten digutenez, Jose doneak garbitasun osoa gorde zuan. Ain osoa noski, Aingeruen Eregiña Mariaren senartzat autua izatea bera ere, etzuan ongi artuko, aurretik jakin ez balu, garbitasun-eskeintza egiña zeukala.

Lege zarean gutxi ezagutua izan zan garbitasun osoa. ¿Zer dala-ta? Mesias ezkonduetatik jaio bear zualako ustez. Seme Jaungoikoak "Birgiñen artean bere atsegiñak bilatzen dituan Jaungoikoak" ez ezkonduetatik, Birgiña batengandik baño jaio nai izan zuan, mirariz ama egiten zuala birgintasuna autzi gabe. Orobat birgiña izan bear zuan Josek ere,

Mariaren senara eta laguna izan bear zuan ezkerro. Ofegatik aurkezten digu Ama-Elizadoneak Jose lirio bat eskuan duala. Jesus etzitekian bizi garbien artean baizik. Bederatziurén au egiten ari zerana, edozein zerala, ezkondua ala ezkongaiia, bada kizu zenbat etsai dituan onomen onek. Aldendu zaite bada erorbide guztietatik, eta uferatu zaite Josegana; eskaiozu garbia izateko grazia, garbi izanik mundu onetan, zeruko atsegiñetan sartu zaitez, bada idatzirik dago "Zeruan biotz garbi-koak sartuko dirala."

IKASBIDEA

Andre goragari bati urteterdiko alabatxo bat il zitzaion saietseko miñez Jose donearen egunean. Etxeko sendatzaleari deitu zitzaion, ea aua ilik zegoan edo esateko: baietz ilik zegoala esan zuan. Andre onen laguna Gertrudis zeritzana, eskergaitzen bat bazutela-ta etxe artan sartu zan, eta aua ilda ikusirik nairgabe aundia egin zitzaion. Berera izan zanean, artzen du Jose doatsuaren irudia, eta belaunikaturik asten da Santuari eskatzen, bere eguna izanik, umearen guraso gaixoak etzitzala ez bear arekin mindu, eta aen, umea piztu zezala. Agintzen dio urtero bere eguna jai egingo duala... eta laister artu zuan umea piztu zalako beña. Aundia izan zan gurasoen poz eta atsegiña.

LAUGAREN EGUNA

Jose donearen beartasuna

"Zorionekoak beartsuak" esaten du Jesukristok ebanjelio santuan; eta Bera ereduizat jañirik ikasbiderik onenak eman nai izan zizkigun onoimen onetzaz. "Aberatsena izanik gugatik beartsu egin zan". Nazaret'ko Birgiña bat artu zuan amatzat, eta Aita-ordeko Jose donea beartsu ta langilea. Eregeen odolekoa izanañen, gabetasunik goñienak ikusi izan zituñan. Antziñatik aurkezten zaigu Jose donea aizkora, mañua ta seña eskuetan dituala.

¿Nor ez da oroitzen gabetasunik goñienean arkitu zala Belen-erian, bere ezkontide Maria-rentzat ostaturik ezin arkitu zuanean? ¿Nola etzitzaion biotza erdibituko Jesus Aur-Jaungoikoa estalpe baten jaiotzen ikustean? ¿Eta Egiptora igesi joan beañean arkitu zanean? ¿Zer bizibide bilatu zuan?.. Zalantzarik gabe esan genezake jende arotz aren artean bere kopetako izerdiz, eta eskuetako lanakin sortu bearko zuala Ama-Semeentzat ta beretzat bear zuana. Jesus, geroago Fariseotañen artean gelditu zanean, onen jakinduriz añiturik esaten zuten. "¿Nondik datorkio jakinduri ori? ¿Ez da bada arotz baten semea?

Bai arotza ta langilea zan Jose donea, eta beartsua gañera. Onela goratu nai izan zuan

Jaungoikoak bertasuna; baña ez, ezin bestean eraman bear dan beartasun ori, beartasun gogozkoa baizik: Jaungoikoaren izenean eramaten dan beartasuna, ez bera baño goragoko guztiak gofotatzen dituan beartasuna. Onek ez du zerura eramaten.

Aberats bizi zeratenak begi onez begiratu beartsuari, zuen anaiak dira-ta. Esku zabalekoak izan zaitezte oekin, Jaungoikoak zoñotz artu etzaizaten. Beartsu zeratenak begiratu Jose donearen etxeari, dana urí dago an, eta Jesus eta Mariaren eskuetan azkenik beartsu il zan Jose donea.

IKASBIDEA

Aurko ikasbidean esan genuen aur berau, lore biltzen ari zala, ur eskin batean irist egin-da, urak eraman zuan. Bere amak ori ikusirik asten da deadarka: Jesus, Maria ta Jose lagun-du, añen, neri. Eta zuk, Jose doatsua, zure eskuan daukazun ezkerro, biurtu zadazu nere alabatxoa. Baña umea etzan agertzen. Ur eskin guztiak bilatu ondorean, umea patxaran zubi baten azpian arkitu zuten. Amaren poza neuri gabea zan. Nere alabatxoa nork onez atera zaitu? Aur polit batek eskutik eldu dit, eta andre eder batek, eta lore-adar bat eskuan duan Jaun batek onez atera naute. Eta Jesus, Maria ta Joserren irudia ikusita: Ama, esan zuan, ni onez atera nautenak oetxek dira. Guk

ere erabili ditzagun Jesus, Maria ta Joserren izen gozoak; izen oek bezelakorik ez da-ta.

BOSKAREN EGUNA

Jose donea gurasoen ispilua.

Aundia da Jaungoikoak gurasoai eman dien eginkizuna: "umeak azi te zerurako bidean jartzea". Gurasoak obe luke guraso ez izan, semeak nolanai utzita, zeruko bidetik oker ibiltzen uztea baño. Onelako gurasoa ez da gurasoa.

Egiazko gurasoen ispilua Jose donea da. Jesusen egiazko Aita ez izanaeren, Espiritu Santuaren egitez sortua izan zalako, Maria Birgiñaren egiazko senara da, eta aita baten eskubideak zeuzkan Jesusgan, bere ezkontide Mariaren semea zalako. Seme-Jaungoikoak etzion ukatu aitaren izenik. Liburu santuetan esaten zaigu "Jesusen gurasoak urtero Jerusalemgo elizara joaten zirala". Jendea berak "arotzaren Semea" deitzen zion Jesusi. Au dala-ta Joserren agintzapean zegoan Jesus, eta Jesusek Joserren agindua beti egiten zuan.

O ispilu ontan begiratuko balira gaur eguneko gurasoak! Mundua atzeratuta, Jaungoikoaren bide onak erakusteko semeail! Bestelakoa izango litzake gurasoen eta semeen zoria. Semeak mundurako ematen dituan gurasoa zerurako bidea eman gabe, lau anke-

koen antzekoa da, ez du abereak egiten duten besterik egiten. Gogoan euki bear dute gorputzak baño geiago balio duala animak, eta anima zeruratzen ez bada, gorputza ezer ez da. Au dala-ta ezi bear ditu gurasoak bere umeak, kristau-ikastia erakutsiaz, bizibide ona emanaz, eta Jaungoikoaren bildur santuan gizon egiñaz. Bestelako gurasoetzaz ondo esan liteke Jesukristok esan zuena: "Obeago izango zan jaio ez balira". "Gurasoak azi ondo zuen semeak", dio Apostolu doneak.

IKASBIDEA

Galai gazte batek, oso Jaungoiko-zalea zalarik, komentu batean sartzeko asmoa artu zuan. Beren gurasoak au jakin zutenean, iñundik iñora burubide ori kentzeko jañi ziran: eta uri batean irabazpide ona zogoala-ta, bestetik beriz, jolasketa aundiak zeudela-ta, ara bialdu zuten. Gaztea, onean iraun bearean, laister aztu zan bere asmo onaz, eta nastaketa gutietan bizi zan. Deabruaren banderapean obeto jañaitzeagatik, gudari egitea gogoak eman zion: gazte ori egunetik egunera gaiztoagoa zan. Gurasoak orduan ezagutu zuten beren okeña. Beren esanak, arendiak eta gaztiguak etzuten ezer balio. Onetan Jose doatsuagana jo zuten bederatziurén bat egiñaz. Eta o Joseren esku ongilea! Irugañen egunerako asi zitzaion argizaria bezela biotza urtutzen, eta

deabruaren kateak autzirik, Jaungoikoagana biurtu zan. Orduan ezagutu zuan zein itxumen aundian egon zan. Ebanjelioko seme banatzailea bezela, joan zan etxera, eta damu-negaréz barkapena eskatu zien gurasoai. Ondoren txar oiek ekartzen ditu seme-alaben bide onak eragoztiak. Gurasoak ikasi.

SEIGAREN EGUNA

Jose donea langilien ispilua.

Gizonak berdiñak ez izatea, ez da munduaren gauza; Jaungoikoarena da. Aingeruak ez dira berdiñak zeruan bertan. Goi-urdir oietan izañak ere banaitu egiten dira, eta "ez dute argi bera ematen". Abereak, landareak, eta abar, era askotakoak dira. Alaxe gizona ere.

Jatorizko pekatua zala-ta, gizona lana egin beaŕean gelditu zan, baldin bere bizigarria sortuko bazuan. Luŕa atseginlekua izanik, pekatuaren ondoren "lañak eta arantzak ematen asi zan", eta "kopeteko izerdiakin" bilatu izan bear du eguneroko ogia. Oŕegatik mundura datoŕen guztia gaitz onekin dator.

Langilien izenakin ordea ez ditugu artzen aberatsak, fabriketan ari diran langile, nekazari, eta gora-beretan dabiltzanak baño. Bizi beaŕak zer lanak eta buruausteak ematen dituan !O guztiak jakingo balute beren bizikera Jaungoikoari eskeintzen! Baña, bai zera: asko

dira Jaungoikoaz oroitzen ez diranak, eta oroitzen badira ere, bere izen santua birauka ibiltzeko izaten da; ez zerura begiratzeko.

Etoñi bitez Nazaret'ko etxetxora, an arkituko dute Jose, aroztegi batean lanean, Mariak eta Jesusek bear dutena irabazteko. Ikasi bezate Josegandik Jaungoikoak jañi dituan mañan egoten. Oroitu bitez, ongiena bizi danak ere, zeregiñik asko baduala. Oñetxegatik deitzen zaio "negañezko erbestea" mundu oneri. Begira Jose doneari, eta ikasi beregandik Jaungoikoak nai duana egiten "zuen atsegiñak atsekabeen neuriñan izango dira-ta".

IKASBIDEA

Senar-emazte bat, seme bakaña izanik, auondo azitzen saiatu zan. Oso elizkoña eta on-zalea zan semea, eta Jose doneaganako oneraspen aundikoa. Baña apaiz egiteko etzeukan gogorik, prañle izateko gutxiago, eta ezkontzeko asmoak artu zituan, eta emaztegai bat eman zezaiola egunero eskeka ari zan Jose doatsuari. Onelan andre aberats baten etxean sartzea gertatu zitzaion, eta bere alabetako bat ikustean, biotzeko dei bat entzun zuan alegia berak izan bear zuala emaztegai. Jose doneari otoitz asko egin ondorean eskatu zion bere amari, eta gazteak bere asmoak agertzean, orobat esan zion neskatxak, dei bera izan zuala une berean ark ere. Onela

Jose doneak, ezkongai bi oek, beti ondo izateko elkartu zituan. Entzun gurasoak, entzun ezkongaiak. Oneraspenik aundiena izan Jose doneari.

ZAZPIGARREN EGUNA

Jose donearen Jaungoikoanako uste osoa.

"Gure bizitza luzean guda (geira) gozia dala" dio Job santuak. Ondo guda ere. Munduko lanak, neke ta gora-berak alaxe esaten digute. Guda izanda guztiz ere, asko arintzen du Jaungoikoaganako uste osoak. Jaungoikoa betikoa da: ez da aldakorra. Eta bere itza iraunkorra, eta agindurik dauka "Bera izango dala laguntzale, eginbear guztietan, eta gure saria zeruan aundia dala": kristauak geranok ondo esan genezake Paulo doneak esaten zuana: "¿Zerk aldenduko gaitu kristoren maitetasunetik? ¿Lanak ala, goseak eta egañiak?.. Ez eta eriotzak berak ere ez gaitu aldenduko Kristoren maitetasunetik ¿Uste al dezu nonbait Jaungoikoa erdiska dabilela, gu bakarrik uzteko? Ain gutxi dezakena egiten al dezu Jaungoikoa, kristau epel orek?"

Begira Jose doneari. Gauza guztien bearean arkitzen zala esan zitekian; baña etzuan inoiz Jaungoikoaganako uste osoa galdu; ondo zekian Arek bere itza ez duala jaten. Gabetasunean, Ejiptora iges egitean, eta Ejipton igaro bear zuan luzaro artan, eta beti,

zerurontz jasotzen zituan biotza eta begiak "bear zuan indaía andik etoriko zitzaiola, eta azkengabeko saria an zeukalako uste osoan". Aberastasunak etzuten itxutzen; emengo aundizkien ateetan etzuan laguntza eskatzen; jakintsuen asmaketak etzituan sinistu; Jaungoikoagan jaía zeukan biotza, "eta bere eskua itxaro dutenak, ez daude uste galduan". O Jose doatsual Makal eta zalantzan gauzka askotan gure sinismen aul onek. Añen, sendotu ta indartu zaiguzu bada gure sinismena, zeruko laguntzaren uste oso-osoan kementsu ta pakean bizi gaitezen.

IKASBIDEA

Luzaro ez dala, komentu batean monja bat gaixo ta oso gaizki zegoan. Sendagilearen iritziz laixter iltzeko zegoan, eta komentulagunak ere etsita zeuden. Onetan añenka asi ziran Jose doatsuri, gaixo ura sendatu zezala, luñeko sendagileak ezin zuten ezkerro. Gaixoak ere Jose doneak sendatuko zualako itxaropena zeukan. Eldu zan bada Jose doatsuaren eguna, eta lagunai esan zien korura eraman zezatela, berak ere meza entzun nai zuala-ta. Koruan Hostia jasotzeakoan zutik jaí zan, Jose doneak sendatu zuala esanaz; eta andik aúrera etzuan gaitzaren aztarnik ere izan... Obispoaren aginduz sendagileak esan zuten Jose do-

neak mirari bat egin zuala. Bergarako *Trinidad*-komentuan gertatua da.

ZORTZIGAREN EGUNA

Jose donea eta otoitza.

"Jaungoikoa ezagutu, maite izan eta otseingiteko dago gizona lufean, gero zeruan ikusi eta atsegin izan dezan" Baña egikizun onek egintza goitiak eskatzen ditu, ez gure izate utsetik bakarik datozenak. Bestela zer bide artu genezake gure zirikalldiai gogor egiteko, gaizkileai barkatzeko, eta... eriotz arte onean irauteko? Utsak dira gure indar guztiak goitik laguntzen ez bazaigu. Ondo esan zuan Jesukristo gure Jaunak "Ni gabe etzerate ezer". Paulo apostoluak beriz "goiko grazi gabe ez genezakeala gogapen on bat izan". Graziak bide bi ditu: Sakramentuak eta otoitza. Sakramentu santuak beti gure eskuan ez daude: otoitza ordea beti gure eskuan dago. Beraz otoitzik gabe ez dago grazirik, eta grazi gabe ez eta zerurik ere.

Otoitzaren bear giñala ondo esan zigun Jesusek: "eskatu ta artuko dezute: ondo dago-kizute beti otoitz egitea: orain arte ez dezute ezer eskatu: eskatu ta emango zaizute, eta zuen atsegiña betea izango da".

Jose doneak ikasbiderik onenak ematen dizkigu gai onetan. Bere bizitza geiena Jaun-

goiko-Seme-Gizonakin igaro zuan, eta ala ere bere biotzeko eskari sutsuak Arengana zitudan. Otoitza Jaungoikoarekin jardutea baldin bada... ¿Nola deituko diogu Jose doatsuaren bizitzari? Jaungoiko-Semeakin izaten zituan elkarizketak besterik izan al zitezkean otoitz beroak baizik? Mariaren biotzaren ondoren ez du Jesusek izan, Joserren biotzak ainbat maite izan duanik.

Munduak ez du ezagutzen otoitzaren balioa, oregatik uzten du. Otoitz zaleak izan gaitzen bada, baldin zerua irabazi nai badegu.

IKASBIDEA

Bein Jesusen Teresa donea bere monja-lagunakin eñi batera zijoala, arisku aundian arkitu zan. Zaldi-burdia arkaitz batean amiltzeko jañi zan. Arkaitzaren be aldetik oju bat entzuten zuten: ez mugitu, ez mugitu, baldin mugitzen bazerate galduak zerate. Ala ikusi zutenek arkaitzak bera joateko egon ziran, baldin beste bidea artu ez balute.

Zein zan ongile ori eta nondik zetozen oju aiek jakin nairik, asi ziran monja gaxoak, eta Teresak esan zien alpeñik zabiltzate; gu onez atera gaituena Jose donea da. Zerbaitegatik eskatu zaio bere bitartekotasuna.

Eta geroenean idatzirik utzi zigun, etzala ezer Jose doneari eskatu ta iritxi etzuanik.

BEDERATZIGAREN EGUNA

Jose donea ta eriotza

Amak sabelean sortzen gaituenetik erioztaren epaia emana dago. "Guztiok il bear degu, eta urak itxasora dijoazen bezela lurpera goaz". Baña zer da eriotza? Bizitzaren azkena dio Jakintzaleak. Lo gozo bat da dio olerkariak. Atsedeen bat Eliza-Amak: "gure bizitza ez da galtzen, aldatu baizik, eta bukatzen danean emengo erbeste au betiko bizitzaren jabe gelditzen gera zeruan". Gizonak ordea berezkoa izanik emen bizitzeko gogo ori, bildur da erioztaz. ¿Zer dala-ta? Ezdakigulako zer izango dan bere ondorena. "Gizonak ez daki maitetasunaren ala goñotoaren diña dan". Badaki bere egikizun guztien zenbakia eman bear diola Jaungoikoari. Baña ez daki nola aterako dan. Ez jakite onek ikaraz eta belduñez jartzen du. Santuak berak ere bildur izaten ziran.

Oregatik Eliza-Ama donea saiatzen da bildur au kentzen. Oregatik ditu bere ariendiak eriozt ordurako, Jaungoikoaren zuzentasunaren bildura utzita, bere erukitasunean eta Jesusen irabazietan gure itxaropena ta uste osoa jartzeko. Au dala-ta jartzen digu Jose donearen eriotza eredutzat. Zer erioztal! Entzun zaio-gun Prantziskoren seme Sena'ko Bernardino doneari. Zenbat alkañizketa izango zituzten

bata besteakin ¡Zenbat adibide emango zizkaten... Jesusek eta Mariak, zenbat laztan gozoi Iñork pakerik izan badu Jose donearena aundia zan. Iñor baiezean egon bada Jaungoikoaren naiarekin, Jose donea egon zan: baze kian guztiok il bear degula, eta onela bere azken arnasa eman zuan Jesusen eta Mariaren eskuetan. Jañi gaitezen Joserren babespean, eta gu ere Jesus eta Mariaren eskuetan ilko gera Josek lagun egiten digula.

IKASBIDEA

Zoritxañez geiegi zabaldua dago azkenar te Sakramentu santuak uzte ori. Ikaratu egingo dala-ta, gaixoari etzaiola ondo estualdi ori ematea-ta, ezinbestean deitzen zaio apai zari; gauza aundirik ezin dutenean. Okeñenak etxekoak berak dira. Ara zer dion Isidoro santuak.

Bein Jose donearen oneraspen aundiko jaun bat gaixotuta, oso gaizki jañi zan. Sendatzale guztiak etziran gauza gaitzaldi ura kentzeko, eta gizon gizarajo aiek laister il bear zuan. Baña eriotzaz ez da itzik ere. Ezin eramanik aien oztasuna, bere ongile Jose donea agertu zitzaion zerutik; eta esan zion zein arisku aundian arkitzen zan, eta elizakoak artzeko. Gizon ura, negañez eta damuz elizakoak artu ondoren Jose donearen eskuetan il zan.

URILAKO AGURTZA ONDORENGO OTOITZA

Gure lañi aldiñ zugana gatoz, Jose donea, ta zure ezkontide txit donearen laguntasuna eskatu ondoren, zure bitartekotasuna uste osoaz eskatzen dizugu. Erugabeko Jaungoikoaren Ama Mariari zenion onginaiaz, ta Jesus-Aurá laztandu zenuan maitetasun xamuragatik, apalkiro eskatzen dizugu: Jesukristok bere odolaz irabazitako *famili* au erukiz begiratzeko, ta zure eskubide ta laguntzaz, gure beařetan lagundu gaitzazula.

Famili Santuren zaitzale txit arduratsual zaitu Jesukristoren jatorri autatua, aienatu guggandik utsegite ta gaiztakerizko kutsu guztiak: gure azkatzale txit iudartsua! zerutik begi onez begiratu ta lagundu gaitzazu, infernuko etsaiarekin darabilkigun buřuka onetan, eta len Jesus-Aurá eriotzako zoritik onez atera zenuan bezela, zaitu orain ere Jaungoikoaren Eliza Donea, etsaien ekiñaldi ta zoritxar guztietatik, eta gu bakoitza zure babespean artu gaitzazu, zure laguntzaz indarturik, zure antzera santutasunean bizi gaitezen, eriotz ona egin, eta betiko zoriona zeruan iritxi dezagun. Amen.

(7 urte ta 7 beřoiko bark., 300 egun. egu-nero urte guztian esaten bada. XIII-gařen Leonek).

AZKENERAKO

Joseph, fili David, noli timere accipere Mariam conjugem tuam; quod enim in ea natum est, de Spiritu Sancto est.

ŷ. Constituit eum dominum domus suæ.

R. Et principem omnis possessionis suæ.

OREMUS

Deus, qui ineffabili providentia beatum Joseph sanctissimæ Genitricis tuæ sponsum eligere dignatus es: præsta, quæsumus; ut, quem protectorem veneramus in terris, intercessorem habere mereamur in cœlis: Qui vivis et regnas in sæcula sæculorum. Amen.





